

## Xedapen Orokorrak

### KULTURA SAILA

**5727**

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko Dekretuarena: «128/2007 Dekretua, abuztuaren 31koa, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren barruan Kultura Sailak txostenak bideratzeko bete behar duen araudia ezartzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuak 24.2 a) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

2007ko irailaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (178. zenbakia) argitaratu zen abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretua, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren barruan Kultura Sailak txostenak bideratzeko bete behar duen araudia ezartzen duena. Dekretu horretan aurreko paragrafoan adierazitako moduko hutsak egin direnez, honen bidez zuzentzen dira.

2.1. artikuluan, 21250. orrialdean, honako hau dioean:

«1.– Kultura Sailari dagokio behar diren txostenak ematea, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorean egiten diren xedapen orokorren proiektuen gainean.»

Hauxe esan behar du:

«1.– Kultura Sailari dagokio behar diren txostenak ematea, nahitaez, Eusko Jaurlaritzan egiten diren xedapen orokorren proiektuen gainean.»

3.2. artikuluan, 21251. orrialdean, honako hau dioean:

«2.– Aurreko paragrafoan adierazitako txostena 10 eguneko epean bideratu beharko da. Epe hori igaro eta txostenik eman ez bada, jarduketekin aurrera egingo da.»

Hauxe esan behar du:

«2.– Aurreko paragrafoan adierazitako txostena hilabeteko epean bideratu beharko da. Epe hori igaro eta txostenik eman ez bada, jarduketekin aurrera egingo da.»

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

**5727**

CORRECCIÓN DE ERRORES del Decreto 128/2007, de 31 de agosto, por el que se establece el régimen al que ha de ajustarse el trámite de evacuación de informe por el Departamento de Cultura en el marco del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

El artículo 24.2.a) del Decreto 155/1993, de 1 de junio, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, insertando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en el texto del Decreto 128/2007, de 31 de agosto, por el que se establece el régimen al que ha de ajustarse el trámite de evacuación de informe por el Departamento de Cultura en el marco del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 178, de 14 de septiembre de 2007, se procede a su corrección:

En el artículo 2.1, página 21250, donde dice:

«1.– Corresponde al Departamento de Cultura informar, de forma preceptiva, los proyectos de disposiciones de carácter general que se elaboren en el seno de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.»

Debe decir:

«1.– Corresponde al Departamento de Cultura informar, de forma preceptiva, los proyectos de disposiciones de carácter general que se elaboren en el Gobierno Vasco.»

En el artículo 3.2, página 21251, donde dice:

«2.– El informe al que se refiere el apartado anterior será evacuado en el plazo de 10 días, pudiendo proseguir las actuaciones de no emitirse el mismo en dicho plazo.»

Debe decir:

«2.– El informe al que se refiere el apartado anterior será evacuado en el plazo de un mes, pudiendo proseguir las actuaciones de no emitirse el mismo en dicho plazo.»